



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia ebazten duena.

Hezkuntza sailburuaren 2023ko urriaren 3ko Aginduaren bidez, 2023ko urriaren 13ko 196 zbk. EHAA, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen. Agindu horren 10. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak.

Bigarrena.- II. eranskinean jasota agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Hirugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA